

**BITARTEKOTASUNEN ESKAINTZA – FAMILIA MEDIKUNTZAKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA
MEDIKOA - LMAT ETA PEDIATRIAKO FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOA - LMAT –
2021EKO ABENDUA**

Abenduaren 15ean, aldi baterako kontratazio-eskaintza egingo da kategoria hauen lanpostu hutsen zerrendatik: **Familia Medikuntzako FEM - LMAT eta Pediatriako FEM - LMAT.**

Eskainitako izendapenak

Bitartekotasuneko izendapenak eskaintzen dira.

Nori eskainiko zaion

1. Libre dauden lanpostu hutsen zerrendako guztiei.
2. Izendapen egonkor eta malgua duten pertsonak eskabidea aurkeztu ahalko dute prozesu honetan, nahiz eta lanpostu huts eta erreserbatuak bakarrik hautatu ahalko dituzten; **ezingo dute inolaz ere beste izendapen egonkor eta malgu bat aukeratu.**

Destino-aukeraketa

- Formulario bat bidaltzen da eskainitako izendapenekin.
- Izena emanda dauden arloko edo arloetako destinoak soilik aukeratu ahal izango dituzte hautagaiek.
- Hautagai guztiek aukeratu ahal izango dituzte derrigortasun-data igarota duten euskara-eskakizuna esleituta duten lanpostuak, nahiz eta eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez izan. Kasu horietan, esleipenerako lehentasuna "destinoaren esleipena" atalean ezarritakoa izango da.
- **Bete nahi dituzten destinoak soilik aukeratu behar dituzte (ezin izango diote uko egin esleitutako destinoari).** Beraz, ez da nahitaezkoa arloko destino guztiak aukeratzea.

Epea

Formularioa bete eta gero, helbide elektronikoa honetara bidali beharko dute: BOLSAS.CONTRATACION@osakidetza.eus, 2021eko abenduaren 22ko 14:00ak baino lehen.

Destinoaren esleipena

Zerrenden hurrenkeraren arabera esleituko dira zehatz-mehatz izendapenak. Derrigortasun-data igarota duen euskara-eskakizuna duen lanpostu bat aukeratu bada eta eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez bada, esleipenerako lehentasuna honako hau izango da:

1. Eskatutako hizkuntza-eskakizuna duten pertsonak (2.HE);
2. Eskatu baino lehenagoko hizkuntza-eskakizuna duten pertsonak (1. HE);
3. Hizkuntza-eskakizunik egiaztatu ez duten pertsonak.

Izangaiei posta elektronikoz jakinaraziko zaie esleitutako destinoa, eta dagokien ESiko Langileen Zuzendaritza haiekin jarriko da harremanetan lanean hasteko eguna ezartzeko.

Destinoak ez aukeratzearen ondorioak:

Destino-aukeraketarik egiten ez duten gainerakoak eskuragarri egongo dira hurrengo eskaintzetarako.

Destinoaren esleipena jakinarazten denean, ezin izango zaio uko egin. **Esleitutako destinoari uko egiteak zerrendatik kanpo geratzea ekarriko du**, kontratazio-zerrendak kudeatu eta prestatzeari buruzko **2011ko maiatzaren 9ko Erabakian adierazitako epeetarako**.

Eskaintza langileen artean ahalik eta gehien zabaltzeko, mezu elektronikoa bidaltzeaz gain, eskaintza hauek egingo dira:

- Kontratazioko web orrian oharra argitaratuko da.
- Kontratazio-zerrendetan izena ematean helbide elektronikorik adierazi ez zuten pertsonekin soilik jarriko gara harremanetan telefonoz, baita posta elektronikoak errore-mezuren bat itzultzen duenean ere.

Gasteiz, 2021eko abenduaren 15a